

## **IKASLEEN PARTE-HARTZEA ESKOLA DEMOKRATIKOAK ERAIKITZEKO GILTZARRI. IRAKASLEEN BEGIRADA BERRITU BATETIK ABIATUTAKO ANTZUOLA HERRI ESKOLAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA**

**Tesiaren egilea:** Maitane Basasoro Ziganda

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila/Institutua:** Didaktika eta Eskola Antolakuntza Saila

**Doktorego-programa:** Psikodidaktika: Hezkuntzaren psikologia eta berriazko didaktikak

**Jakintza-arloa:** Gizarte eta Lege Zientziak

**Tesi-zuzendaria:** Inaki Karrera Xuarros eta Maialen Garmendia Larrañaga

**Tesiaren laburpena:**

Doktoretza-tesi honetan aurkeztutako ideiek garbi uzten dute hezkuntzaren konpromiso politikoa, gizarte demokratiko eta justuagoak eraikitze bidean. Egungo errealitatea erreproduzitzetik haratago, hezkuntzak, ikuspegi kritiko batetik, egungo injustizien kontra borrokatzeko ardura du. Hala, *bizi garen* gizartea islatu baino, *nahi dugun* gizartea islatu behar dute eskolek beren egunerokoa.

Eskola demokratiko eta justuak eraikitze bidean, ikasleen parte-hartzeaz hausnartzera garamatza ikerketa honek. Ikuspegi eraldatzaile batetik ulertzen dugu ikasleen parte-hartzea, herritar aktibo eta kritiko gisa hezteko eta hazteko ezinbesteko erraminta modura. Parte-hartze demokratiko batez ari gara, non ikasleek modu zuzen eta erreal batean eskolako bizitzan eragiteko aukera izango duten.

Lege-esparruak zein hezkuntza-arloko eragileek ikasleen parte-hartzea ezinbestekoa dela adierazten dute; hori praktikara eramateko garaian, ordea, hutsunea nabaria da eta hezkuntza-praktika «parte-hartzaile» gisa izendatzen diren akzio sinbolikoetara mugatzen da. Teoriaren eta praktikaren arteko arrakala hau gainditzeko eta parte-hartze demokratiko baten alde ekarpena egiteko, garrantzitsua da hezkuntza-erlaketan lagundu dezaketen ereduak ezagutzea. Bide horretan gure alea jartzeko asmoz jo genuen Antzuola Herri Eskolara. Izan ere, aurretik eskolarekin egindako bidea zela eta, parte-hartzea sustatzen duten gako interesgarriak identifikatzeko gune aproposa izan zitekeela ondorioztatu genuen.

Ikerketa honen helburuak bi izan dira: Antzuola Herri Eskolako ikasle ohien esperientziak eta gogoetak jasotzea, parte-hartzea sustatzen duten gakoak identifikatzeko; eta Antzuolako hezkuntza-proiektua sakontasunez aztertzea, parte-hartzea sustatzen duten gakoak eguneroko jardunean nola gauzatzen diren ulertzeko.

Hala, ikasle ohiekin 28 talde-eztabaida egin genituen, irakasle eta irakasle ohiekin beste talde-eztabaida bat egin genuen, eskolan 24 eguneko behaketa-prozesua abiatu genuen eta dokumentazioaren azterketa ere egin genuen. Antzuolako ikasle ohiek, haien esperientzien kontakizunetan oinarrituz, parte-hartzea sustatzen duten hainbat gako identifikatzen lagundu digute, baita haien parte-hartzea nola bizi izan duten ulertzen ere. Ondoren, irakasleen ahotsak, behaketak eta dokumentazioa kontuan hartuta, gako horien atzean dagoen irakurketa pedagogikoa eta prozedura aztertu ahal izan ditugu.

Antzuolan burututako ikerketa etnografikoa baliagarria izan da ikasleen parte-hartzea sustatzeko interesgarriak diren hainbat dimentsio eta gako identifikatzeko. Zentzu horretan, ikusi ahal izan dugu irakasleen begiradari, curriculumari eta antolaketari erreparatu behar zaiela ikasleen parte-hartzea erreala izan dadin, eta are inklusiboa, komunitarioa eta kritikoa izan dadin.